

Gizarte Zerbitzuen Estatistika

Emaizen analisia

Aurkibidea

1.	1. ENTITATEAK ETA ZENTROAK	5
1.1.	Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia	5
1.2.	Entitateetako eta zentroetako langileak.....	7
1.3.	Entitateen eta zentroen gastua.....	9
1.4.	Sistemaren finantzaketa	11
2.	EGOITZAK	13
2.1.	Zentroak eta plazak	13
2.2.	Erabiltzaileak	15
2.3.	Egoitzetako langileak.....	16
2.4.	Egoitzen gastua.....	18
2.5.	Egoitzen finantzaketa	20

Sarrera

Gizarte-zerbitzuak, beste arlo batzuen bidez betetzen ez diren gizarte-beharrizanei arreta emateko baliabide eta jarduketa gisa hartuta, sistema irekia dira. Estatistika hasi zen urtetik, hots, 1988tik, zenbait zerbitzu, esaterako haurtzaindegiak eta adingabeentzako erreforma-zentroak, sistematik kanpo geratu dira, beste erakunde batzuek hartu dituzten heinean. Hala ere, gizarte-zerbitzuetarako gastuak gehituz jarraitzen du, beste jarduera batzuk egin baitira: Jarduera garrantzitsuenak ekonomia-prestazioetarako eta adinekoentzako izan dira, hala nola, oinarritzako errentaren ingurukoak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, eguneko laguntza-zentroak, familiei atsedeen emateko etxeak eta abar.

Analisi honi dagozkion datuek adierazten dute 1.298 milioi euroko guztizko gastuarekin (joan den urtean baino 101 milioi gehiago), sektorearen hazkunde-erritmoa ekonomia osoak izandakoa baino biziagoa izan dela, eta guztira BPGren %2,3koa izan dela. Gastu hori iazkoa baino %8,5 handiagoa izan da.

Urteko %11,3ko tasa metatuarekin, azken hamarkadako hazkundeak %3,8an gainditu du ekonomia osoan izandako hazkundeak. Aldi horretan, gizarte-zerbitzuetako gastua bikoiztu egin da eta honako hazkunde metatuak lortu ditu: %158koa gastu arruntan, eta %131koa familientzako diren transferentzietan. Gastuen eta sarreraren aldagai bakoitzean egiazta daiteke bilakaera hori, 1 taulan agertzen dira.

Unitate ekonomiko baliokideetan (2005eko euroak) azken hamarkadan biztanle bakoitzeko gastua %98 hazi da, %8ko tasa metatuarekin. 2005ean 606 eurokoa izateraino iritsi da. Administrazio publikoek sistemari egindako ekarpena biztanle bakoitzeko 422 euro izan da, hau da, duela 10 urteko 205 euroak bikoiztuz.

Familientzako transferentzien programei dagokienez, administrazio publikoak honako ekintza hauek egin ditu:

- Oinarritzako Errentaren programa eta bere osagarriak: 144,6 milioi euro, %15,5 igo da aurreko urtearen aldean. Lau urtetan gastua bikoiztu egin da (%+137). 2005ean biztanle bakoitzeko 68 euroko gastua izan zen. Alde handiak izan ziren lurraldearen arabera: Bizkaian biztanle bakoitzeko 95 euroko gastua egon zen, Araban 49 eurokoa eta Gipuzkoan 30ekoa. Lurraldeen araberrako banaketa hori ez da oso ohikoa gizarte-zerbitzuen alorrean.
- GLL programa eta bere osagarriak: 33,8 milioi euro gastatu dira, hots, 2004koa baino %15,7 gehiago. Gehien Araban gastatu da, biztanle bakoitzeko 21 euro, Bizkaian 16 eta Gipuzkoan 13.
- Ohiko kontribuzioez besteko pentsioei dagokienez, 2002an hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du: Kontribuzioez besteko Pentsioetan (KBP), Gizarte Ongizateko Funtsetan (GOF) eta Elbarriak Gizarteratzeko Legean 49,6 milioi euro gastatu dira (%-7).
- Frankismo garaiko biktimentzako laguntza ekonomikoak: Prestazio bakarreko izaeraz sortu zen 2004an, eta hondarra da 2005ean. Nabarmen jaisten da eta familientzako transferentzien bilakaera aldatzen du: partida hori gabe %10eko igoera izango lukete; harekin, %+1,7, batez bestekoaren azpitik.

Azkenik, hona hemen 2005ean nabarmendu diren gaiak:

- Etxeko laguntzari dagokionez, gastua 62,6 milioi eurokoa izatera iritsi da (%+8). Zerbitzu hori aldi berean finantzatuta dago: %90 administrazio publikoak finantzatu du eta gainerako %10 erabiltzaileen ordainketekin finantzatu da. 20.000 erabiltzaile artatu dira (%+5), eta erabiltzaile bakoitzaren batez besteko kostua 3.137 euro izan dira. Batez beste, erabiltzaileko 180 ordu, 17 euro orduko. Etxez etxeko arreta jaso duten erabiltzaile gehienak (%90) hirugarren adinaren

taldekoak izan dira, eta horrek Euskal AEn talde horren %5 estali dela adierazten du (65 urte eta gehiagoko jendea).

- Gizarte-zerbitzuen oinarritzko baliabide diren hirugarren adinerako egoitzetan 15.559 toki eskaini dira. Gastua, guztira, 339 milioi eurokoa izan da, eta gastu hori gizarte-zerbitzuen gastuaren %25 da. Oro har, azken bi urte hauetan eskaintza nabarmen hazi da. 2.032 plaza sortu dira eta gastua %28 igo da. Horrelako zentro gehienetan, egoitzako kostuaren finantzaketan baterako ordainketa edo erabiltzailearen partaidetza egoten da, betiere honek eskura dituen baliabideen arabera. Egingako gastuaren %42 ordaindu dute erabiltzaileek, eta administrazioek, aldiz, %57.

1. TAULA. 1996-2005. Aldiko aldagai garrantzitsuenen bilakaera

(Gastua uneko mila eurotan)



	2005	2004	1996	Urte arteko tasa (05/04)	Urteko tasa metatua (05/96)	Aldakuntza- tasa (05/96)
BALIABIDE EKONOMIKOAK	1.297.642	1.196.320	495.621	8,5	11,3	161,8
Gastu arruntak	959.083	876.216	361.481	9,5	11,5	165,3
Ordainsariak	469.169	420.968	206.634	11,5	9,5	127,1
Bestelakoak	489.914	455.248	154.847	7,6	13,7	216,4
Familiatarako transferentziak	274.566	270.046	120.674	1,7	9,6	127,5
Kapital-gastuak	63.993	50.057	13.466	27,8	18,9	375,2
Entitate eta zentro publikoetako gastuak	764.503	723.243	311.449	5,7	10,5	145,5
Entitate eta zentro pribatuetao gastuak	533.139	473.077	184.173	12,7	12,5	189,5
Finantzaketa publikoa	903.157	837.714	353.910	7,8	11,0	155,2
Finantzaketa pribatua	394.485	358.606	141.711	10,0	12,0	178,4
GIZA BALIABIDEAK	40.616	36.221	23.856	12,1	6,1	70,3
Bertako langileak	21.941	20.613	12.073	6,4	6,9	81,7
Bertako langileak (DOB) (1)	19.837	18.653	11.222	6,3	6,5	76,8
Boluntariotza	18.675	15.608	11.783	19,7	5,3	58,5
BALIABIDE MATERIALAK						
Entitate-kopurua	1.318	1.304	975	1,1	3,4	35,2
Zentro-kopurua	2.544	2.512	1.696	1,3	4,6	50,0
Egoitza-kopurua	734	715	417	2,7	6,5	76,0
Egoitza-plazak	20.212	19.596	13.604	3,1	4,5	48,6
GASTUA TIPOLOGIAREN ARABERA						
Biztanleria osoa	474.183	458.008	191.344	3,5	10,6	147,8
Familiatarako transferentziak	271.013	270.046	118.284	0,4	9,6	129,1
Haur-Gazteak	41.427	38.221	16.420	8,4	10,8	152,3
Egoitzak	30.328	29.048	13.451	4,4	9,5	125,5
Adinekoak	391.759	345.852	141.340	13,3	12,0	177,2
Egoitzak	338.724	296.983	124.890	14,1	11,7	171,2
Ezgaitasuna	317.092	286.076	116.194	10,8	11,8	172,9
Egoitzak	56.351	43.533	26.222	29,4	8,9	114,9
Lanbide-zentroak eta EZB (2)	202.545	189.707	69.654	6,8	12,6	190,8
Emakumeak	8.782	6.446	2.338	36,2	15,8	275,6
Gizarte- bazterketa	64.398	61.717	27.995	4,3	9,7	130,0
Biztanleko gastua (eurotan)	606	562	237	7,9	11,0	156,0
% BPG	2,3	2,2	1,6	0,9	3,8	39,6

Iturria: Eustat

(1) Dediakzio osoko baliokidetzatza



(2) Enplegu-zentro bareziak

1 Grafikoa. Biztanle bakoitzeko gastuaren bilakaera, gizarte zerbitzuetan (eurotan)





Iturria: Eustat

2.a Grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera (milioi eurotan)



Iturria: Eustat

2.b Grafikoa. BPGaren eta guztizko gastuaren bilakaera (1995. urtean oinarritutako indizea)



Iturria: Eustat

1. 1. Entitateak eta zentroak

1.1. Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia

Euskal AEko gizarte-zerbitzuak 1.318 entitateen inguruan egituratu ziren 2005. urtean. Gizarte-zerbitzuetako entitate horien 2.544 zentroen bidez, sistemak eskainitako gizarte-zerbitzuak bideratu ziren.

2005ean, beraien jarduerarekin gizarte-zerbitzuetan parte hartu zuten entitateen kopurua %1 hazi zen, aurreko urtearen aldean.

2. taula: Gizarte-zerbitzuetako entitateen eta zentroen banaketa 2005. urtean.

	Euskal AE			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
	Guztira	Publikoak	Pribatuak			
Entitateak	1.318	310	1.008	246	716	356
%	100	24	76	19	54	27
Zentroak	2.544	1.003	1.541	502	1.260	782
%	100	39	61	20	50	31

Iturria: Eustat

Banaketa geografikoari begiratuz gero, Euskal AEko entitate eta zentroak herririk handienetan biltzen dira. Zentroen %42 euskal hiriburuetan dago. Hiriburutza-faktorea nabarmenagoa da Araban, zentro guztien %63 Gasteizen baitaude. Bizkaian antzeko kontzentrazio-maila dago Bilbo Handia (%72) Arabako Lautadarekin (%70) alderatzean, nahiz eta Bizkaiko hiriburuan zentroen %40 kontzentratzen den. Gipuzkoako eredia sakabanatuagoa da; zentroen %32 hiriburuan daude, eta %49 Donostialdean. Hala ere, banaketa hori ez da homogenea. Izan ere, oinarritzko gizarte-zerbitzuak, klubak eta erretiratu-taldeak oso sakabanatuta daude udalerrri gehienetan.

Euskal AEko gizarte-zerbitzuen sarearen tipologiari dagokionez, bi eredu kontrajarri daude; alde batetik, *makroentitateak* daude, kopuruz gutxi, % 2 eta % 5 bitartean (erabilitako aldagaien arabera), baina baliabide-kontzentrazio maila handiarekin. Beste muturrean, *mikroentitateak* ditugu; oso ugariak diren arren (%80 inguru), baliabide ekonomikoen eta pertsonalekoen %20 baino gutxiago erabiltzen dituzte.


Sektore pribatuko mikroentitate kopuru handiaren azalpena haxe da: asoziazionismoak daukan garrantzia arazo komunei aurre egiteko orduan. Sektore publikoan, udalerrri txikietako udalek eratzten dituzte. Errealitate hori Gizarte Zerbitzuen Legearekin sustatutako gizarte-ehunaren parte da, honako alderdi hauek kontuan hartzen baititu: «borondatezko gizarte-lana eta mozkina ateratzeko asmorik gabeko entitateak», «ekintza pribatuaren parte-hartze arautua gizarte-zerbitzuen kudeaketan» eta udalei, tamaina edozein dela ere, gizarte-zerbitzu alorrean «dezentralizazio, malgutasun eta hiritarrekiko hurbiltasun irizpideen arabera» emandako eskumenak.

Gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten entitateen artean, gehienak zelula bakarrekoak dira (%79), hau da, zentro bakar baten bidez eskaintzen dituzte zerbitzuak. Entitateen %5 bakarrik baliatzen dira bost zentrotik gorako sareaz; dena dela, entitate horiek sistemari dagokion gastu guztiaren %66 biltzen dute. Multzo txiki horretan, foru-aldundien eta erkidegoko hiririk jendetsuenetako udalen sareak daude.

Langile-kopuruari dagokionez, berriro ere entitate txikien garrantzia agerian geratzen da, gehienek (%67) 5 langiletik behera baitituzte. Aitzitik, entitateen %2k besterik ez dituzte 100 langile baino gehiago, eta landunen %55 eta gastuaren %60 hartzen dituzte.

Diruaren aldetik, ia entitateen erdiak (%40) 30.000 eurotik beherako gastua hartzen dute, hau da, gastu osoaren %1era ez dira iristen. Kontrako muturrean, 6 milioi eurotik gorako gastua dute 24 entitatek (%2) eta sistemaren gastu osoaren erdia baino gehiago (% 63) osatzen dute. Kontzentrazio horrek Araban du kopuru handiena, entitateen %1ek (guztiak publikoak) guztizko gastuaren %74 jasotzen baitu; kopuru txikiena, berriz, Gipuzkoan dugu, entitateen %3k gastuaren %61 egiten baitute.


3. grafikoa. Zentroak, artatutako biztanleria motaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Arreta ematen zaion biztanleria-motaren arabera, zentroen %43 adinekoekin aritzen da, %21 elbarriekin, eta %13 biztanleria osoarentzat da. Azken atal horretan oinarritzko unitateak eta droga-mendetasunen prebentziorako zentroak sartzen dira. Gizarteko gainerako arloek (haurrak eta gazteak, emakumeak eta baztertuak) gainerako %23 biltzen dute.

4. grafikoa. Zentroak, zentro-motaren arabera (% 2005)



(*) Lanerako ikastegiak eta enplegu-zentro bereziak.
 Iturria: Eustat

Zentroen tipologia oso zabala da. Kopuruz, 734 egoitza-zentrok osatzen dute talderik nagusiena; eta horiek, 582 eguneko zentroekin batera, eskaintzen diren zentroen erdia osatzen dute.

1.2. Entitateetako eta zentroetako langileak


Sektoreak guztira 21.941 laguni eman die lana 2.005. urtean, eta, horien artean, 13.964 (%68) emakumeak dira. Kopuru erlatiboetan, horrek esan nahi du landunen %2,3k horretan lan egiten dutela; eta kopuru hori %3,8ra igotzen da emakumeen artean. Lurraldeka, Araban dugu gehienekoa, emakume landunen %4,5era iristen baita.

Talde horrek egindako lana 18.675 (%+20) borondatezko langilek egindakoarekin osatzen da. Borondatez lan egin dutenak sektore pribatuan aritu dira gehienak (%99). 2005ean kolektibo horrek dedikazio osoko 1.061 langilek adina lan egin zuen. Azpikontrataturako zuzeneko arretako 4.411 langile ere izan genituen. Horietatik erdiak etxeko laguntzako zerbitzuan egin zuen lan.

Dedikazio osoko baliokidetzaren (DOB) arabera 19.837 langile kalkulatu dira. Horrek %10 murriztu du sektorean diharduen langileen kopuru osoa. Lanaldi partziala duten langileen kopuruak eragin handiagoa du eguneko zentroetan eta udalaren oinarritzko gizarte-zerbitzuetan.

Langileak eginkizunaren arabera sailkatuz gero, talderik handiena zuzeneko arretako langile espezializatuen da (%50), eta, talde horren barruan, klinikako laguntzaileena nagusitzen da besteen aldean, langileen guztizkoaren %19ekin. Garrantzi handikoa da langile-erabiltzaileen presentzia enplegu-zentro berezietan, hots, lan babestuko enpresetan. Enpresa horiek EGLren (Elbarriak Gizarteratzeko Legearen) babesean sortu ziren, eta bere xedea elbarriak lanaren bidez gizarteratzea da. Horregatik sartu ditugu atal berezi honetan, gainerako langileetatik bereizita. Izan ere, zentroaren xedearen arabera, zuzeneko erabiltzaileak dira; baina bestalde, langile ordainduak dira aldi berean. Talde horrek 6.187 langile ditu, eta langile enplegatuen %28 hartzen du.

5. grafikoa. Bertako langileak, zereginaren arabera (% 2005)




Iturria: Eustat

Langile talde hori, jarduera egiten duen entitate eta zentroen titulartasunaren arabera, honela banatzen da: %28k sare publikoan egiten dute lan, eta gainerako %72k, sare pribatuan. Langileen banaketa, probintziaz probintzia, honako hau da: %16 Araban, %48 Bizkaian eta %36 Gipuzkoan. Gipuzkoan lortutako proportzio altuen zergatia enplegu-zentro berezietan (EZB) sortu diren enplegu babestuen kopuru altuetan dugu. Izan ere, langile eta erabiltzaileak alde batera uzten baditugu, langileen banaketa horrela geratuko litzateke: %35 sektore publikoan eta %65 sektore pribatuan.

Banaketa hori bat dator arestian aztertu dugun zentro-banaketarekin eta gauza bera gertatzen da lurraldeen arabera: Araban %17, Bizkaian %53 eta Gipuzkoan %30.

Aurreko urtearen aldean, enplegua %6 igo da. Dinamikoagoa izateagatik sektore pribatua (%+8) nabarmendu da sektore publikoaren (%+2) aldean. Era berean, Bizkaia (%+9) nabarmendu da Arabaren (%+2) aldean, eta eguneko zentroak eta zerbitzu tekniko orokorrak (%+11) nabarmendu dira beste zentro batzuen aldean (%+6). Lurraldeen artean, Araba nabarmendu da, lurralde bakarra baita enplegu publikoa pribatuaren gainetik dagoena.


6. grafikoa. Bertako langileak, artatutako biztanleriaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Arreta emandako biztanleria-motaren arabera, langileen talderik handiena bi talderekin aritzen da: 10.243 langile (%47) elbarrien ardura-lanetan (horietatik, %19k osasun-laguntza ematen dute, eta %28 EZBertako langile-erabiltzaileak dira) eta 7.771 (%35) adinekoekin. Langileen %18k baino ez dihardute gainerako kolektiboari arreta ematen.

7. grafikoa. Bertako langileak, zentro-motaren arabera (% 2005)



(*) Lanerako ikastegiak eta enplegu-zentro bereziak.


Iturria: Eustat

Langileak aritzen diren zentro-motaren arabera, honela sailkatuko ditugu: gehienak egoitzetan (%42) eta lanbide-zentro nahiz enplegu-zentro berezietan (%35) aritzen dira. Eguneko zentroek, elkarateek eta beste batzuek, ostera, nahiz eta zentroen erdia hartzen duten, langileen %13 baino ez dituzte enplegatzeko, baina boluntarioen %85 biltzen dituzte.

1.3. Entitateen eta zentroen gastua

Euskal AEn, gizarte-zerbitzuen sistemaren beharrei erantzuteak, 1.298 milioi euroko ahalegin ekonomikoa eskatu zuen. Kopuru hori hiru partidatan dago banatuta: gastu arrunta, transferentziak eta kapital-gastua. Gastu arrunta 959 milioi euro (%74) izan zen eta zerbitzuen gastuak ordaintzeko erabili zen, eta gastu horretatik ia erdia, 469 milioi euro, pertsonal-gastuak ordaintzeko izan zen. Familietarako transferentzien partida 274,6 milioi eurora iritsi zen (%21). Epigrafe horretan, batik bat honako hauek finantzatzeko funtsak sartzen dira: oinarritzko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, kontribuzioez besteko pentsioak (elbarriak gizarteratzeko legea eta gizarte-ongizateko funtsak), eta seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko planean araututa dauden jaiotzengatik laguntzak. Azkenik, 64 milioi euro kapital-gastuetarako izan ziren (%5).

8. grafikoa. Gastuak, izaeraren arabera, titulartasunari eta lurraldeari jarraiki (% 2005)



Iturria: Eustat

Gastuak, guztira, %8ko hazkundera izan du 2004. urtearen aldean. Gastu arrunta %9 hazi da, familietarako transferentziak %2, eta inbertsioa %28. Azken bi urteak kontuan hartzen baditugu, hazkundera, orotara, %22koa izan da gastu arruntean eta %18koa familietarako transferentzietan.


Familietarako prestazio ekonomikoen programen artean oinarritzko errentaren programa nabarmendu da, daukan garrantziagatik. Azken bi urteetan 145 milioi euroko gastua izan du eta %32ko hazkundera. Familietarako prestazio ekonomikoen erdiak (%53) biltzen dira oinarritzko errentan, eta, salbuespen izanik, frankismo garaiko biktimentzako laguntzak ere nabarmendu dira. Ordainketa bakarreko laguntzak dira eta 2004ko 23,9 milioi euroetatik 2005eko 2,5era pasatu dira. Partida hori sartuko ez balitz familientzako transferentzien hazkundera %10 litzateke aurreko urtearen aldean.

Gastua honela banatu da titulartasunaren arabera: %59 sare publikoan, eta gainerako %41 pribatuan. Lurraldeen arabera, alde nabarmenak daude sektore publiko edo pribatuari dagokionez: Arabak hiru lurraldeetako zentro publikoen sare garrantzitsuena du (gizarte-zerbitzuetarako gastuaren %79 xurgatzen du). Aitzitik, Bizkaia eta Gipuzkoa ez dira %60ra iristen.

Gastuaren osaerak argi uzten du gizarte-zerbitzuen antolaketa ezberdina dela lurralde bakoitzean. Arabak alde handiak ditu, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren aldean. Arabako gastuaren %35 zentro publikoetako langileria-gastuak ordaintzeko erabiltzen da; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gastu hori %14koa eta %11koa da hurrenez hurren. Bizkaian, erakunde publikoek familiei laguntzeko egiten dituzten transferentziek gastuaren %27 hartzen dute; Araban eta Gipuzkoan, aldiz, kopuru hori %15era eta %14ra iristen da hurrenez hurren. Zehatz-mehatz, Bizkaiko oinarritzko errentako gastua erkidego osoko gastuaren %75 eta lurraldeko gastuaren %16 izan da, Arabakoaren eta Gipuzkoakoaren gainetik (%7 eta %5 hurrenez hurren).

Prestazio-motaren arabera, Euskal AEko gizarte-zerbitzuen sisteman bi zerbitzu-mota dira garrantzitsuenak: egoitza-zerbitzuak eta zerbitzu nagusiak. Gastatutako hiru euroetatik bat egoitza-zentroetan izan da eta beste bat entitateetako zerbitzu nagusietan. Azken honen bilakaeraren azalpena zera da, ia osorik kudeatzen duela familientzako prestazio ekonomikoen egitarauetan egindako gastua.


9. grafikoa. Gastuak, zentro-motaren arabera (% 2005)



(*) Lanerako ikastegiak eta enplegu-zentro bereziak.

Iturria: Eustat

10. grafikoa. Gastuak, artatutako biztanleriaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Arreta eman zaion biztanleria-motaren arabera, gastuaren %37 biztanleria orokorrarentzat izan da . Batez ere prestazio ekonomikoaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bitartez bideratu da gastua (berez gastuaren %21 eta %5 eratzen dute, hurrenez hurren). Hurrengo tokian, adinekoei (%30) eta ezgaituei (%24) zuzendutako baliabideak daude; gainerako biztanleria-taldeek guztizko gastuaren %9 hartzen dute.

1.4. Sistemaren finantzaketa


2005ean, gastuaren zatirik handiena (%70) funts publikoen bitartez finantzatu zen, 903 milioi euroekin. Zehazki, foru-aldundiak izan dira ahalegin handiena egin dutenak: gastuaren %36 hartu dute bere gain. Horien atzetik Eusko Jaurlaritzako ekarpenak (%19) eta udalenak (%13) daude.

Esan beharra dago aztertutako arloaren barruan ez dauden beste partida batzuetako sarrerak sarrera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzen dituen erakundearen beraren funts gisa hartzen direla. Ildo horretatik, administrazio zentralari esleitutako funtsak helburu jakin bat duten diru-laguntzak baino ez dituzte hartzen, jatorria arlo supraautonomikoko erakunde publikoetan dutenak, hala nola, INEMek enplegu-zentro bereziei ematen dizkienak eta Europako Gizarte Funtsak

Iturri pribatuen bidez, gainerako %30 finantzatu zen; finantzaketa pribatu horretan sartzen dira familiak (erabiltzaileek eta dohaintzek %14 ekartzen dute), zerbitzu-eskaintzaz besteko salmentak (%12), eta azkenik, erakunde pribatuen ekarpen garbiak (%4).


Arabak du, berriz ere, finantzaketa publikorik handiena (%76), eta Bizkaia (%71) ondoren. Azkenik, Gipuzkoak finantzaketa publikoaren mailarik baxuena du, %64. Alde hori berriro ere, herrialde horretako sare pribatuan autofinantzatze-maila handiko enplegu-zentro bereziek duten garrantziak eragin du. Zentro horiek kontuan hartuko ez balira, Euskal AEko gizarte-zerbitzuetako gastuaren %79 ekarpen publikoaren bidez finantzatuko litzateke. Arabak izango luke finantziario publikorik altuena (%82), eta gero Bizkaia (%78) eta Gipuzkoa (%78).

11. grafikoa. Finantzaketa, jatorriaren arabera, titulartasunari eta lurraldeari jarraiki (% 2005)



Iturria: Eustat

12. grafikoa. Finantzaketa, jatorriaren arabera, biztanleria-motari jarraiki (% 2005)



(*) Lanerako ikastegiak eta enplegu-zentro bereziak.

Iturria: Eustat

Sarrera-motak kontuan hartuta, hiru finantziazio-iturri garrantzitsu daude: salmentak eta prestazioak (%25), diru-laguntzak eta itunak (%36), eta bertako funtsak (%38); beste diru-sarrerak, oster, ez dute %1 besterik osatzen.

Lurraldeen arteko ezberdintasun garrantzitsuenei dagokienez, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren aldean Araba nabarmendu da foru-sareko zentroak baliabide propioekin finantzatzeko. Azken bi lurralde horietan, Arabako foru-aldundiaren ekarpenaren kuota osora iristen ez bada ere, diru-laguntzen eta itunen bidezko zeharkako prestazio gehiago izaten da. Bizkaiak finantzaketa handiagoa jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren eskutik, lurralde-gastuaren %24 hain zuzen ere. Zenbateko hori Arabaren (%14) eta Gipuzkoaren (%13) ia bikoitza da, Oinarritzko Errentaren gastuko presentzia handiagoagatik, zeina Bizkaian gastu publikoaren %23 baita, hiru aldiz gehiago Araban (%8) eta Gipuzkoan (%9) baino. Gipuzkoan, zerbitzu-eskaintza besteko salmentengatik finantziazioak (%19) beste bi lurraldeenak bikoiztu egin ditu. Izan ere elbarrientzako lanbide-zentro eta lan-zentro gehiago daude.

Zentro publikoen sarea, oro har, foru-aldundien (%43), Eusko Jaurlaritzaren (%29) eta udalen (%19) bitartez finantzatzen da. Lortutako finantzaketa publikoak, oro har, %92 osatzen du eta iturri pribatuetatik eratorritako sarrerak, gainerako %8. Sarrera pribatu gehienak salmenten eta prestazioen bitartez lortu dira.

Zentro pribatuen finantzaletaren %37 administrazio-ko diru-laguntza eta itunen bidez lortu zen. Sarrera-iturri publiko nagusiak honakoak izan ziren: aldundiak (sarreraren %25 ekarri zuten); eta gainerako administrazioek, udalak, Eusko Jaurlaritzak eta administrazio zentralak eta europarrak gainerako %12 ekarri zuten. Era berean, ekarpen pribatuarekin gainerako %63 finantzatu zen. Sarreraren izaerari jarraiki, %50 salmenta eta prestazioetatik eratorria da; %39 diru-laguntza eta itunetatik dator, ia gehienak administrazio publikoekin lortutakoak (%2 besterik ez dator erakunde pribatuetatik). Partikularrek egindako dohaintzek %3 osatzen dute, eta erakundeetatik eratorriko funtsak gainerako %8.


2. Egoitzak

2.1. Zentroak eta plazak

Azterketa honetarako, egoitzak zentzu zabalean hartu dira, hau da, arreta (iraunkorra edo ez) eta osoko laguntza eskaintzen duten zentroak dira, ostatuaren, mantenuaren eta bestelako osagarrien bitartez. Halako zentroak mota askotakoak dira (etxe funtzionalak, egoitzak, harrera-zentroak, aterpetxeak, tutoretzapeko etxeak...) beren jarduerak eskaintzen dizkieten kolektiboen beharrianak ere askotarikoak baitira (adingabe babesgabeak, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, beren buruaz baliatzen diren adinekoak, besteren laguntza behar duten adinekoak, ezgai psikiko sakonak, autistak, mugimen-urrituak, etxerik gabekoak, etorkinak, drogazaleak, GIBak jotako pertsonak...).

Gizarte-zerbitzuen sistemaren baitan halako zentroek duten garrantzia kontuan izanda, arreta eman zaion biztanleria-motaren arabera emaitza nagusiei buruzko kapitulu espezifikoak sartu dugu estatistikan. Aldagai horrek talde komunak hartzen ditu.

13. grafikoa. Egoitza-plazak, titulartasunaren arabera, lurraldeari eta biztanleria-motari jarraiki (% 2005)



Iturria: Eustat


2005eko Euskal AEko egoitza-eskaintza 734 zentzoren inguruan egituratu zen. Zentro horietan 20.212 plaza eskaini ziren eta 34.906 erabiltzaileri eman zitzaion arreta. Zifra hori erdiraino murrizten da (18.291) abenduaren 15ean plazaren batean zegoen oro hartzen bada erabiltzailertzat. Izan ere, hori da estatistika honetan erabili ohi den kontzeptua. Balio erlatiboetan mila biztanleko 9 plaza eskaintzen dira, eta horietatik 7 hirugarren adinerako izan dira.

Egoitza-eskaintza pribatua izan da gehienbat, plaza guztien %64rekin. Gainera, eskaintza publikoak baino hazkunde-erritmo biziagoa izan du. Izan ere, azken 10 urteetan plaza pribatuen eskaintza urtean %5 igo da batez beste, eta zentro publikoetan %2. Lurraldeetan ezberdintasun nabariak daude: Bizkaia da lurralde bakarra gehienbat eskaintza pribatua duena (plazen %80). Araban eta Gipuzkoan eskaintza pribatua %40 eta %50 da hurrenez hurren.

266 egoitzak (%36) titular publikoa dute, eta 468k (%64) pribatua. Egoitza publikoetan 7.374 plaza eskaintzen dira eta pribatuetan 12.838. Lurraldeen aldetik, Araban 156 egoitza daude, gehienak publikoak (%62); guztira 3.443 plaza eskaintzen dira. Bizkaian 347 egoitza daude, gehienak (%84) pribatuak; guztira 10.184 plaza eskaintzen dira. Gipuzkoan, 231 egoitza daude, eskaintza

orekatuagoarekin (%49 zentro publikoak dira eta %51 pribatuak), eta 6.585 egoitza-plaza daude; horietatik, %50 publikoak dira.

14. grafikoa. Egoitza-plazak, biztanleria-motaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Egoitza gehienak, 369, (%50), adinekoentzat dira. Hala, 15.559 plaza daude zaharrentzat (%77), eta 14.318 dira erabiltzaileak (%78). Eskaintza hori 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko 4,0 plazakoa da. Sare publikoan 107 zentro daude, 5.468 plazarekin. Aldiz, sare pribatuak 262 zentro ditu, 10.091 plazarekin.

2005ean adinekoentzako egoitza-eskaintza aurreko urtekoaren antzekoa da; Bizkaian ez, ordea, izan ere ekimen pribatuz 13 zentro (517plaza) sortu ziren. Azken hamarkadan, beti ere biztanleriaren zahartzearen ondorioz sortutako aukerak erakarririk, beste enpresa-sektore bat finkatu da sistemaren baitan. Horren ondorioz, sektore pribatuan eskaini diren plazetan, urteko batez besteko hazkundea ia bi aldiz gehiago da sektore publikokoa baino; 2005ean guztien %65 ziren erakunde pribatuek eskainitako plazak adinekoentzako egoitza-zentroetan. Nolanahi ere, egoitza pribatuetako plazen %37 administrazio publikoekin hitzartuta egon direla kontuan hartzen badugu, plaza gehienak (%59) ardura publikokoak izango lirakeke.

Adinekoentzako etxeetan ere ezberdintasunak ikusi ditugu lurraldeen artean Araban 67 zentro ditugu, gehien bat (%60) pribatuak; plazak 2.485 dira, gehienak (%56) publikoak. Bizkaian, 205 egoitza eta 8.076 plaza, eskaintza publikoa %18 bakarrik da, %42 hitzartutakoak sartzen baditugu. Aitzitik, Gipuzkoan gehienak publikoak dira: 97 zentro eta 4.998 plaza daude, eta zentroen %60 eta plazen %52 publikoak dira; %34 hitzartutakoak.

Adinekoen mendekotasun-mailari bagagozkio, egoitza gutxi batzuk baino ez daude soilik mendetasuna duten zaharrak zaintzeko prestatuta (32 guztira). Egoitza horietan 2.092 plaza (%13) daude. Gainerako plazak beren buruaz baliatzen diren adinekoentzako egoitzetakoak (83) eta mistoetakoak (254) dira.

Eskaintzen dituzten plazen kopuruari jarraikiz, hurrengoak pertsona ezgaituei arreta emateko egoitzak dira. Hala, 111 zentro daude, 1.724 egoitza-plazarekin. Horietatik %59 establezimendu pribatuek eskaintzen dituzte. Establezimendu eta plaza gehienak ezgai psikikoei arreta emateko dira, eta zentroen %14 eta plazen %15 bakarrik dira ezgai fisikoentzat. Sektore honetako zentro-mota arruntena da elbarri psikiko arin eta ertainentzako etxe funtzionala (%41). Nabarmentzekoa da larri


eta sakonentzako 6 egoitzatan bakarrik daudela ezgaitasunaren arabera bertara eramandako 4 pertsonetatik 1.

Gainera, haur eta gazteentzako 73 egoitza-zentro daude, txikiak gehienak. Zentro horietan, guztira, 873 plaza eskaini dira, eta horietatik %57 titulartasun publikokoak dira .

Baztertuentzako plazak eskaintzen dituzten 118 egoitzena da talde heterogeneoena, bai tipologiaren aldetik (gizarte larrialdietako etxeak, pasadizokoentzako aterpetxeak, terapia komunitateak...) bai tamainaren eta arreta ematen zaien sektore espezifikoaren aldetik. Guztira 126 zentro dira, eta 15 plaza baino gutxiago dituzten etxeak dira horietatik %81, gehienak titulartasun pribatukoak. Hala, 1.724 plaza eskaintzen dira; horietatik %30 sare publikokoak dira, eta %70 pribatukoak.

Azkenik, badira emakumeei arreta emateko zentro gutxi batzuk (55), gehienak publikoak, 418 egoitza-plazarekin. Egoitza hauek, normalean, egonaldi motz-ertaineko pisoak izaten dira

15. grafikoa. Zahar-etxeetako erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (% 2005)




Iturria: Eustat

2.2. Erabiltzaileak

Egoitza-zentroetako 18.291 erabiltzailetatik, 15.519 hirugarren adinerako zentroetakoak dira. Adineko mendekoak (9.753) adinekoentzako zentroetako egoiliarren %68 dira. Azken 10 urteetan erabiltzaile mendekoen kopurua urteko%8z hazi da, eta egonkor dirau baliatzen direnen kopurua. 2005ean egoiliartu zirenen %76 mendekoak ziren.

Hirugarren adineko egoitzetan dauden ezaugarriak aztertuz gero, batez ere emakumeak daudela ikusiko dugu (%71), haien presentzia haziz doala adinak aurrera egin ahala. Lurraldeen arabera aldeak daude, %69 Araban eta %72 Bizkaian. Honako hau da erabiltzaileen banaketa, adinaren arabera: %16k 75 urtetik behera ditu, %41ek 75 eta 85 urte bitarte, %21ek 85 eta 89 urte bitarte, eta 90 urte baino gehiagokoa da gainerako %22 . Lurraldeen artean alde handirik ez dagoen arren, Gipuzkoako zahar-etxeetan daudenak zaharragoak dira; %26k 89 urte baino gehiago dauzkate. Hala ere, esan dugunez, ez dago alde handirik Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta.

16. grafikoa. Ezgaituentzako egoitzak. Erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Bestalde, eta ezgaituentzako etxez ari garela, %46 emakumeak dira; Gipuzkoan dute proportziorik baxuena (%43). Adin-talde ugariena 35 eta 44 urte bitartekoa da (%66); zehazki, 35-44 urte bitarteko taldea (%32). Aitzitik, adin-talderik urriena (%1,0) 15 urtetik beherakoena da. Bestalde, 65 urte eta gehiagokoek oso eragin txikia dute (%1,3). Izan ere, talde horretakoak normalean zahar-etxeetako egoiliarak izaten dira.

Erabiltzaileen artean dagoen txandaketa kontuan hartuta, esan daiteke 2005ean ia 35.000 pertsonak izan zutela egoitza-zerbitzuetarako sarbidea, hau da, iaz baino zerbait gutxiagok (-754). Zifra horrek estatistikan (abenduen 15erako) normalean erabiltzen den erabiltzaile-kopurua bikoiztu du. Igoera hori baztertuentzako zentroetatik dator gehienbat. Izan ere, zentro horietan urtean batez beste 8 erabiltzaile izaten dira plaza bakoitzeko, eta beste talde batzuetan kopuru hori 1,2koa izaten da. Ezberdintasun hori arloaren beraren ezaugarrien ondorioz sortu da: egoitza-baliabide gehienak egonaldi laburrekoak dira; zehazki, pasadizokoentzako aterpeetan, 216 plaza 9.233 pertsonen erabili zituzten, hau da, plaza bakoitzeko 43 erabiltzaile izan ziren.

2.3. Egoitzetako langileak

Egoitza-zentroetako langile-kopurua 9.231 lagunera iritsi da; horien artean gehiengoa, %86, emakumezkoak dira. Zentroen titulartasunaren arabera, langile-kopuru osoaren %30 zentro publikoetan aritu zen. Lurraldez lurralde, honela banatu ziren: %17 Araban, %55 Bizkaian eta %28 Gipuzkoan.

Nahiz eta langileen azterketa kontratatutako langileetan oinarritzen den, ezin ditugu borondatez lan egiten dutenak ahaztu. 1.169 pertsonen era altruistan egin zuten lan, batez beste ordubetez. Azpikontratutako langileak ere ezin ditugu ahaztu, 1.941 langile izan dira eta batez beste 6 orduz egin dute lan. 2005ean 3,1 milioi orduz aritu ziren erabiltzaileak artatzen.

2004. urteari dagokionez, kontratatutako langileen kopurua %4,8 hazi zen. Arreta zuzeneko azpikontratutako langileak %9 murriztu ziren. Landunen %73k soldatako finkotzat egin zuen lan, %22k behin-behineko langiletzat eta gainerako %5ek autonomotzat edo soldatakoa ez den langile-motatzat.


Langileria sailkapena honako hau da: 769 langile zuzendaritza eta administrazioaren artean (%8), 1.898 langile zerbitzuetan (%21), 4.750 osasun-alorrekoak (%51), eta gainerako %20 hezkuntza-arlokoak, teknikariak eta beste batzuk. Lanbide-sailkapenaren aldetik, klinikako laguntzaileak, eta ostalaritzako nahiz garbiketako langileak pertsonalaren %60 eta emakumeen %66 hartzen dute.

Langile-talde horrek artatutako biztanle-motari dagokionez, %77k hirugarren adinekoen arloan egiten dute lan, %13k ezgaituen sektorean, eta gaineko %10ek haurtzaroaren, gazteriaren, bazterkeriaren eta emakumeen alorrean.

Hirugarren adinekoentzako egoitzetan guztira 7.126 pertsonak egin zuten lan: 10etik 7k sektore pribatuan. Funtzionalki, osasun-arloko langile gehiago dago batez beste (%63). Pixkanaka, lehen zaintzailenak ziren lanpostuetan orain klinika edo geriatriako laguntzaileak ditugu. Azkenik, esan beharra dago egoitza gehienetan zuzeneko arretarako langileetan egiten direla azpikontratazio gehienak (%71).

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzek 1.233 langile dituzte, zentro publiko eta pribatuetan berdin banatuta. Hala ere, zentro publikoetako langile gehienek (%89) ezgai psikiko larri eta sakonentzako zentroetan egin zuten lan. Arlo horretan aritu zen langileen %59. Lanbide-saillkapenaren arabera, honako hauek nabarmentzen dira: monitoreak eta klinikako laguntzaileak. Zaintzaileak eta monitoreak alderantziz daude erlazionatuta: zenbat eta ezgaitasun psikiko handiagoa orduan eta zaintzaile gehiago eta hezitzaile gutxiago.

17. grafikoa. Egoitzak Bertako langileak (DOB), 100 egoitza-plazako (2005)



Iturria: Eustat


Egoitzek dedikazio osoko baliokidetzan (DOB) ari diren 53 langileko ratioa dute 100 plaza bakoitzeko, eta horietatik 28 osasun-arlokoak dira. Ez dago alde handirik zentroen titulartasun pribatuari nahiz publikoari dagokionez. Hala ere, lurraldeak kontuan hartuta badira zenbait ezberdintasun: Arabako egoitzetan (60 langile ari dira dedikazio osoko baliokidetzan) Bizkaiko (54) eta Gipuzkoako (46) egoitzetan baino ratio handiagoa dute. Horrez gain, zentroen tamainaren arabera ere badira. Izan ere, 30 eta 100 plaza bitarte dituzten egoitzetan, DOBn ari diren 43 langile daude, eta 13 eta 29 plaza bitarte dituztenetan 56 langile.

Adierazle hori aldatu egiten da baliabidea zein biztanleria-atali ematen zaion arabera. Zahar-etxeak, guztira, 48 badira ere, mendekotasuna duten zaharren etxeen kasuan 68 dira. Hala ere, beren buruaz baliatzen diren zaharren egoitzei dagokienez, 31 egoitza daude. Azken kopuru hori emakumeen eta baztertuen arloan lortutakoen antzekoa da. Giza baliabide gehien behar dituzten egoitzak haur eta gazteentzako egoitzak dira. DOBn ari diren 66 langiletako zuzkidura dute. Era berean, ezgaituentzako egoitzak multzo horretan sartzen dira (DOBn diharduten 60 langile), ezgaitu fisikoenak batik bat: 100 plazako 74 langile ari dira DOBn.

2.4. Egoitzen gastua


Egoitza-zentroak mantentzeko egindako ahalegin ekonomikoa 445 milioi eurokoa izan zen, iaz baino %15 handiagoa. Hazkundera garrantzitsua izan zen, 2003an egondako hazkundera bere baitan sartu baitzen eta horrek esan nahi baitu azken hiru urteotan egoitza-zentroetarako esleitutako baliabide ekonomikoek %44ko gorakada izan dutela. Gastuaren %54 zentro pribatuetan egin zen. Egoitzetako gastu arrunta %92 izan zen. Gastu horretatik erdia langileen gastuetan erabili zen. Lurraldez lurralde, gastuaren %19 Arabari egokitu zitzaion, Bizkaiari %50, eta Gipuzkoari %31.

18. grafikoa. Egoitzak Gastuak, izaeraren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat


19. grafikoa. Egoitzak Gastuak, biztanleria-motaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Egoitzen guztizko gastua, zaindutako biztanleria motaren arabera, honela banatu zen: %76 zahar-etxeetan, %13 ezgaituen zentroetan, %7 haurren eta gazteen egoitzetan, eta gainerako %4, baztertuentzako eta emakumeentzako egoitzetan.


20. grafikoa. Egoitzak Gastuak, izaeraren arabera, titulartasunari, lurraldeari eta biztanleria-motari jarraiki (% 2005)



Iturria: Eustat

Egoitza-plazako batez besteko gastu arrunta 20.618 euro izan zen, 2004an baino %8 gehiago. Lurraldez lurralde, Araban, egoitza-plaza bakoitzeko gastu arrunta 24.207 eurokoa da, hots, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino 3.000 euro gehiago. Zentroen titulartasunaren arabera, zenbateko hori ezberdina izan da: 27.659 eurokoa sare publikoan, eta 16.641ekoa zentro pribatuetan.

21 grafikoa. Gastu arrunta plazakoa, zahar-etxeetan (eurotan 2005)




Iturria: Eustat

Zahar-etxeetako plaza bakoitzeko gastu arrunta 20.424 eurokoa izan da; egoitza mistoetan ere gastu arrunta berdintsua izan da. Ratioa, hala ere, nabarmen aldatzen da egoitza-motaren arabera, eta %41 gehitzen da mendekotasuna duten zaharrentzako egoitzetan (28.835 euro), eta erdira jaisten da bere buruaz baliatzen diren zaharrentzako egoitzetan (9.541 euro).

Ezgaituen arloan, ratioa 28.365 eurora iristen da plaza bakoitzeko, eta alde nabarmenak daude zaindutako ezgaitasun-motaren arabera: ezgaitu psikiko larri eta sakonentzakoetan, ia 38.463 eurokoa da; ezgaitu psikiko arin eta ertainentzako egoitzetan, berriz, 21.579 eurora iristen da.

Haur eta gazteen egoitzen arloan plaza bakoitzeko gastua 34.371 eurokoa izan da. Baliabide gutxiago behar dutenez, ratorik baxuena emakumeei arreta emateko egoitza-zentroetan izan da, plazako 7.083 euro baino ez baitira gastatu.

22. grafikoa. Gastu arrunta plazako, ezgaituen egoitzetan (eurotan, 2005)



Iturria: Eustat


DOBko langileen batez besteko ordainsaria egoitzen multzorako 27.276 euro izan zen, 2004an baino %6,6 gehiago. Zentroen titulartasunaren arabera, ratorik altuena sare publikoari dagokio, 45.570 euro; baxuena, berriz, zentro pribatuei, 19.597 euro.

Artatutako biztanleria-motari dagokionez, berriro ere alde nabarmenak azaltzen dira: 20.173 euro emakumeentzako egoitzetan, eta beste muturrean, 36.633 euro haur-gazteentzako egoitzetan. Zahar-etxeetan, DOBn diharduten langileko batez besteko ordainsaria 25.678 eurokoa da.

2.5. Egoitzen finantzaketa

Egoitzak honela finantzatu ziren 2005. urtean: %60 diru publikoaren bidez, gastuaren %31 erabiltzaileek ordaindu zuten jasotako prestazioengatik, eta, gainerako %9, erakunde pribatuek eta dohaintzek jarri zuten. Ekarpin publikoen atalean, aipatzekoak dira foru-aldundien (%50) (erdiak itunen bidez) eta udaletatik datozenak (%9).

23. grafikoa. Egoitzak Finantzaketa, titulartasunaren eta biztanleria-motaren arabera (% 2005)



Iturria: Eustat

Lurraldeen arteko aldeari dagokionez, finantzaketa publikoa handiagoa (%72) izan da Araban; Gipuzkoan, aldiz %63koa izan da, eta Bizkaian %54koa. Bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan, salmenta eta zerbitzuengatik sarrerak altuagoak izan dira, %33 eta %32 hurrenez hurren, Arabakoak (%27) baino.

Finantzaketa-iturri nagusiak desberdinak izan ziren egoitzen titulartasunaren arabera. Egoitza publikoak gehienbat (%19) salmenten eta zerbitzuen bidez finantzatu ziren; gainerakoa ekarpen publikoen bidez. Egoitza pribatuetan, salmenten eta zerbitzuen bidezko finantzaketa %42koa izan zen; administrazio publikotik datozen diru-laguntza eta itun bidez %43 finantzatu zen; erakunde pribatuek %13 ekarri zuten, eta azkenik, dohaintzetatik datozen beste sarrera batzuek gainerako %2 baino ez zuten ekarri.

23. grafikoa ikusten denez, finantzaketaren osaera oso desberdina da, baliabidea zein biztanleria-motari zuzentzen zaion kontuan izanda: zaharren arloan da txikiena ekarpen publikoa (% 53); handiena, berriz, familien ekarpenetan, batez ere salmenta eta zerbitzuen bidez (% 40); beste muturrean, finantzaketa publiko handiena haur eta gazteen arloan lortzen da, ekarpen hori % 100ekoa baita.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



Eustat

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.eus